

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

17. zenbakia

Data 2004-01-28

1627 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

IBARRAKO UDALA

Taberna, kafetegi, jatetxe eta antzekoak kokatu eta jartzeko udal ordenantza. Behin betiko onespena.

IBARRAKO UDALA

Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, 2003ko azaroaren 26an udalbatzarrak egindako ohiko osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez Taberna, kafetegi, jatetxe eta antzeko jardueretarako diren establezimendu publikoen kokalekua eta instalazioa arautzeko Udal Ordenantza onetsi zen. Jarraian araudiaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2004ko urtarrilaren 20a.—Alkatea. (422)

Taberna, kafetegi, jatetxe eta antzeko jardueretarako diren establezimendu publikoen kokalekua eta instalazioa arautzeko Udal Ordenantza.

1. artikulua. Helburua.

Establezimendu publiko berrien, dibertimenduzko jardueren eta antzekoen instalazioa eta horien irekitzea arautzeko irizpideak definitzea da Ordenantza honen helburua, eta, ere berean, dagoeneko badaudenen irizpideak aldatzea, jarduera horiek normalean sortarazten dituzten eragozpenak saihesteko.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza honetan jasotako aginduak nahitaez bete behar dituzte zerrendatu diren establezimendu publiko guztiek eta Ibarra herrian instalatu nahi dutenek. Horretaz gain, erabilera hori baimenduta dagoen lekuetan ezarri behar dira establezimenduak, aplikagarri zaion hirigintzako antolamenduak xedatutakoa betez.

Hasieratik eskatuko da arau horiek betetzea, horrelako jarduerak garatzeko beharrezkoa den udal lizentzia edo baimen-sistemaren bidez, eta, bereziki, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legeak xedatutako ondorioetarako.

3. artikulua. Ordenantza bete behar duten jarduerak.

Ordenantzak honako establezimendu publiko eta dibertimenduzko jardueri eragiten die:

a) Edozein kategoriatako taberna, kafe-denda, kafetegi eta taberna-jatetxeei; bai eta garagardotegi, izozki-denda, txokolategi, dibertimenduzko eta jolaserako areto, bolatoki, klub, whiskitegi, pub,

taberna amerrikar, disko-taberna, diskoteka, dantza-areto, dantzaleku, kafe-kontzertu, bingo eta antzekoei ere.

b)Publikoari eta bertako kideei edariak eskaintzen dizkien elkarte-gastronomiko, dibertimendurako elkarte, erretiratu-en-ete, txoko, alderdien lokal eta antzekoei, sagardotegiei eta abar, baita mendiko nekazalturismoei ere.

c)Era berean, ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte aurretik aipatu ditugun jarduerak nahiz eta beste jarduera nagusi baten osagarri izan. Ordenantza honek emandako aginduak bete behar dituzten jarduera edo establezimendu baten osagarritasuna zehazteko, honako baldintza hauek ezarri dira:

c.1)Jarduera edo establezimendu osagarria ezin da nagusitik bereizita erabili.

c.2)Jarduera edo establezimendu osagarriak nagusiak duen ordutegi bera izan behar du.

c.3)Jarduera edo establezimendu osagarrira ezingo da zuzenean kanpoaldetik sartu, jarduera edo establezimendu nagusiak hartzen duen eremutik pasatu beharko da osagarrira iristeko.

d)Ordenantza hau atera aurretik dauden establezimenduek ordenantza argitaratu eta 5 urteko epea izango dute ordenantzak ezarritako xedapenetara egokitzeko.

4. artikulua.Klasifikazioa, taldeka.

Barne hartutako jarduerak edo establezimenduak Ordenantza honen aplikaziorako honako talde hauetan klasifikatu dira:

4.1.I. Taldea.

Jarduera goizeko seiak baino lehen ireki ez eta gaueko hamarrak baino beranduago ixten ez duten kruasandegiak, gozotegiak eta edozein motatako dastalekuak. Musika-aparatua baldin badute ezin ditu 30 dezibelio gainditu.

4.2. II. Taldea.

Oso larriak ez diren zaratengatik eragozpenak sor ditzaketeen establezimenduak (gehienez ere 75 dezibeleko potentzia eraginkorra duten musika-aparatuek sortutako zarata gisara ulertu behar da) bai eta usain edo hots ez oso handiak eragin ditzaketeen establezimenduak, adibidez, kafetegiak, jatetxeak, elkarteak, txokoak, alderdi politikoek elkarteak eta abar.

4.3.III. Taldea.

Aurretik aipatu ditugun establezimenduak 90 dezibelera irits daitezkeen musika-aparatuek baldin badituzte.

4.4.IV. Taldea.

Nagusiki zarataren eraginez eragozpenak sortzen dituzten establezimenduak, 90 dezibel baino gehiagoko potentzia duten musika-aparatuek dituzten kafeak, tabernak eta antzekoak barne hartuz, bai eta dantzatu eta kontsumitu daitezkeen lokalak ere (diskotekak, kafe-teatroak, dantzalekuak eta abar).

4.5.Horietako talderen batean argi sar ez daitezkeen establezimenduren bat baldin badago udalaren

zerbitzu teknikoek egindako txostenaren ondoren sartuko da talderen batean, betiere jardueraren ezaugarriak kontuan harturik, antzik gehien duen taldera. Edonola ere talderik murriztaileenean sartzea esan nahi du horrek.

4.6.Talde jakin baten barnean dagoen establezimendu bat ezingo da maila goragoko beste batera pasatu, beste baimen bat eskatu gabe.

5. artikulua.Kokalekuak.

5.1.Ordenantza hau aplikatzeko udalerrria 21 alorretan banatu da, eta 1etik 21era zerrendatu dira, eta horiek udalerrrian dauden jarduera-dentsitate mailari begira definitu diren eremuetako bati atxiki zaizkio. Alorrak eremu bakoitzerako ezarritako erregimenaren azpian jarri dira. Hori guztia honako.

<i>Alo-rra</i>	<i>Eremua</i>	<i>Zenbat Jarduera Gehienez</i>	<i>Jardueren Arteko Gehienezko Distantzia</i>
A1	Bakoitiak Euskalherria k/ 1etik 17ra	(II, III) Taldeetako 4+ 2 I. Taldetik	12 metro
A2	Bikoitiak Euskalherria kaleko 16.era arte	(II, III) Taldeko 3 + (I) Taldeko 1	25 metro
A3	Euskalherria kaleko 16.etik 32.era eta 19-41	(II, III) Taldeetako 2 + (I). Taldeko 1	25 metro
A4	Euskalherria eta Julian Gaiarre kaleetako atzealdea	Debekatuta	
A5	Idoiaga Plaza	(II). Taldeko 2+ (I). Taldeko 1	12 metro
A6	San Ignacio auzoa	(II, III). Taldeetako 3+ (I). Taldeko 2	18 metro
A7	Apaiz Erreka, Emeterio Arrese eta Otarreaga	(II, III). Taldeetako 2+ (I). Taldeko 1	25 metro
A8	Emeterio Arrese 15, 16	Debekatuta	
A9	Emeterio Arrese 20 eta 22	(II, III). Taldeetako 1	
A10	Julian Gaiarre Argindegi	(II, III). Taldeetako 2 + (I). Taldeko 1	12 metro
A11	6. jarduera unitatetik Euskalherria 59.era	(II, III). Taldeetako 2 + (I). Taldeko 1	15 metro
A12	Guridi	Debekatuta	
A13	Uzturre auzunea	(II,III). Taldeetako 2 + (I). Taldeko 1	20 metro
A14	Euskalherria k, 63-75 eta Ibaigain 1etik Euskalherria kaleko 64.era	Debekatuta	
A15	San Bartolome plaza	(II, III). Taldeetako 3 + (I). Taldeko 1	2 metro
A16	Arantzazuko Gure Ama	(I). Taldeko 1	

A17	Ixpilla etxea, Tximparta eta kiroldegia	Debekatuta	
A18	Zaldune 1, 5 eta 11 eta 4-14	(II,III). Taldeko 1	
A19	1. bizitoki-eremua	(II,III). Taldeetako 2 + (I). Taldeko 1	30 metro
A20	Eraikuntza mistoak, bizitokia eta nekazaritza abeltzaintzakoa lur hiritarrear	(II). Taldeko 4	
A21	Industria-eremuak		

Zona	Ámbito	Nº Máx. Actividades	Distancia Máx. Entre Actividades
A1	Impares C/Euskalherria 1 a 17	4 de Grupo (II, III) + 2 de Grupo I	12 metros
A2	Pares C/Euskalherria hasta nº 16	3 de Grupo (II, III) + 1 de Grupo (I)	25 metros
A3	C/ Euskalherria Nº 16 a nº 32 y 19-41	2 de Grupo (II, III) + 1 G (I)	25 metros
A4	Trasera C/ Euskalherria y Julián Gayarre	Prohibido	
A5	Plaza Idoiaga	2 Grupo (II)+ 1 Grupo (I)	12 metros
A6	Barrio San Ignacio	3 Grupo (II, III) + 2 Grupo (I)	18 metros
A7	Apaiz Erreka, Emeterio Arrese y Otarreaga	2 Grupo (II, III) + 1 Grupo (I)	25 metros
A8	Emeterio Arrese 15, 16	Prohibido	
A9	Emeterio Arrese 20 y 22	1 Grupo (II, III)	
A10	Julián Gayarre Argindegi	2 Grupo (II, III) + 1 Grupo (I)	12 metros
A11	UA-6 hasta Euskalherria 59	2 Grupo (II, III) + 1 Grupo (I)	15 metros
A12	Guridi	Prohibido	
A13	Grupo Uzturre	2 Grupo (II,III) + 1 Grupo (I)	20 metros
A14	C/ Euskalherria 63-75 e Ibaigain 1 a Euskalherria 64	Prohibido	
A15	Plaza San Bartolomé	3 Grupo (II, III) + 1 Grupo (I)	2 metros
A16	Nuestra Sra. de Aránzazu	1 Grupo (I)	
A17	Casa Ixpilla, Tximparta y polideportivo	Prohibido	

A18	Zaldume 1, 5 y 11 y 4 a 14	1 Grupo (II,III)	
A19	PR1	2 Grupo (II,III) + 1 Grupo (I)	30 metros
A20	Edificaciones mixtas, residencial, agropecuaria en suelo urbano	4 Grupo (II)	
A21	Áreas Industriales		

5.2. Titularrak bere borondatez ixten badu edota ustiategiaren jardueretako bat babesten duen baimenaren iraungitzea aitortzen bada, eremu berean beste baimen bat eman dakioke baina jarduera berriaren kokalekuak dagokion gutxieneko distantzia gorde behar du. Jarduera berria onartu egingo da baldin eta dagokion eremurako baimendutako jardueren gehienezko kopurua gainditzen ez badu.

6. artikulua. Distantziak neurtzeko modua.

Distantziak honela neurtuko dira: Oinplanoaren proiektzioan zirkunferentzia bat egingo da, eta horren erradioa talde bakoitzerako ezarritako gutxieneko distantzia izango da eta erdigunea instalatu nahi den establezimenduaren edozein puntu zeina distantzia neurtzen den establezimenduarekiko gertuen dagoen.

7. artikulua. Baldintza teknikoak.

Ordenantza honen ondorioetarako definizio hauek ezarri dira:

7.1. Azalera publiko erabilgarria.

Establezimendu baten barneko azalera publiko erabilgarri gisara ulertzen da pertsonak egoteko eta establezimenduaz gozatzeko dagoen eremua, eta ez dira erabilera horretarako batzen salmahai gisara erabilitako azalera, ez eta sukalde, arropazaindegi, biltegi, bulego, bainugela eta sarbide murriztuko beste gela batzuen azalera ere.

7.2. Gehienezko edukiera.

Lokal baten gehienezko edukiera honako hau da: Azalera publiko erabilgarrian sar daitezkeen pertsonak. Okupazio hori kalkulatzeko honela egingo da: Azalera publiko erabilgarriari metro koadroko pertsona bat aplikatuz.

7.3. Azalera.

Lokal baten gutxieneko azalera erabilgarria ez da 35 metro koadro baino gutxiago izango.

Establezimendu baten azalera publiko erabilgarria ez da 10 metro koadro baino gutxiago izango.

Azalera publiko erabilgarriaren edo lokalak duen gehienezko edukieraren arabera, honako klasifikazio hau ezarri da:

A Mota, 10-40 m² edo pertsona.

B Mota, 40-80 m² edo pertsona.

C Mota, 80-120 m² edo pertsona.

7.4.Sarbideak.

Lokalek sarbide zuzena izan behar dute kanpoaldetik, eta sarbidea ezin da egin eraikuntzaren komunikaziorako elementu orokorren bidez.

7.5.Ateak.

7.5.1.Ateek gutxienez 2,10 metroko garaiera izan behar dute, bainugelenak eta gainerako erabilera ez publikorako gelenak izan ezik, horienak gutxienez 2,03 metro izan behar dute.

7.5.2.Pasabiderako ate-orriaren gutxienerako zabalera hauxe izan behar da:

—0,90 metro orri bakarreko ateak. Salbuetsita daude bainugeletara sartzeko ateak eta zerbitzurako gelak. Horien gutxienerako zabalera 0,60 metrokoa izan behar da, minusbalioentzako bainugelako atearen zabalera gutxienez 0,90 metro izan behar duela kontuan hartuz.

—1,20 metro, iraunkorki eragisgarriak diren bi orriko ateen kasuan, horietako batek gutxienez 0,90 metroko zabalera izan behar du.

—Gehienez orriaren zabalera 1,20 metro izan ditzake.

7.5.3.Kanpoaldetik sartzeko ate guztiek ixteko sistema automatikoa izan behar dute, eta ixteko posizioan egon behar dira.

7.5.4.Kanpoaldetik sartzeko ateak, hustutzeko bidearen norakoan zabaldu behar dira, hau da, kanpoaldera.

Kanpoaldera irekitzen diren ate horiek fatxada-lerrotik behar adinako tartean kenduta egon behar dira, irekitzen direnean bide-publikoa har ez dezaten. Salbuetsita daude larrialdietarako erabilera dutenak, zeinak fatxada-lerroaren mailan koka baitaitezke, betiere, lokalera ohiz sartzeko erabiltzen ez badira eta kanpoaldetik irekitzen ez badira.

7.5.5.Larrialdietarako ate guztiek izu-ikararen kontrako irekitze sistema izan behar dute, eta lokalaren barnean ezin da ate horietara iristeko inolako trabarik egon.

7.5.6.Hirugarren eta Laugarren (III. eta IV.) Taldeetan sartu diren establezimendu guztiek sartzeko ate bikoitza izan behar dute, eta haize-babeserako atatea ere izan behar dute, larrialdietarako ateak izan ezik zeinak ez diren lokalera sartzeko ate gisara erabili behar.

Ate horien ekorketa-arearen gutxienerako atatea 0,50 metrokoa izan behar da.

7.5.7.Lokalaren barnean 90 dB (A) baino gehiagoko zarata maila atera dezaketen musika-aparatuen instalazioak dituzten Hirugarren eta Laugarren (III. eta IV.) Taldeetan sartu diren establezimenduek, ate bikoitza izan behar dute haize-babeserako atatea eratuz.

7.5.8.Kanpoaldeko sestraren maila desberdina duten establezimenduetan pasatzeko ateak gutxienez 1,20 metroko zabalera izan behar du.

7.5.9.Arautegiek hala agintzen dutelako sartzeko ate bat baino gehiago izan behar duten establezimenduek, beren artean bereizi egin behar dira ahalik eta lokalaren itxurak uzten duen bezain beste.

7.6.Eskailerak:

Establezimendu publikoetara edo publikoarentzeko eremuetara iristeko eskailerek baldintza hauek bete behar dituzte:

7.6.1.Maila edo kontramaila bakoitzaren garaierak ez du 17 zentimetro baino gehiago izango eta mailagaina ez da 28 zentimetro baino gutxiagokoa izango.

7.6.2.Eskailera horma artetik egiten bada eskubanda jarri behar da, gutxienez bi aldeetako batean betiere 2,40 metroko zabalera gainditzen ez badu, eta hala bada erdiko bat jarri behar da.

7.6.3.Eskailera kurbatuak onartuko dira gutxienez 28 zentimetroko mailagaina badute barne-muturretik 50 zentimetrora neurtuta, eta mailagainak ezin ditu 42 zentimetro gainditu kanpo-ertzean.

7.6.4.Eskailerek gutxienez 1,20 metroko zabalera izan behar dute, bai eta eskaileretara iristeko tarteez ere.

7.6.5.Eskailera baoak gutxienez 2,20 metroko garaiera izan behar du, bai eta bertara iristeko eremu guztiek ere.

7.7.Gutxieneko garaierak.

Gutxieneko garaiera honi esaten zaio: Lokaren zolaren eta sabaiaren akabera osatzen duten edozein elementuren artean dagoen tarteari, sabaiarekin zerikusirik ez duten dekorazio elementuak kontuan hartu gabe.

Gutxieneko garaierak hauek dira:

7.7.1.Azalera publikoan:

- a)I. Taldekoentzat: 2,60 metro.
- b)II. eta III. Taldekoentzat: 2,80 metro.
- c)IV. Taldekoentzat: 3,00 metro.

7.7.2.Komunetan:

- a) 2,40 metro establezimendu mota guztientzat.

7.7.3.Sukaldean eta barran:

- a)2,40 metro establezimendu mota guztientzat.

7.7.4.Publikoak erabiliko duen eremuaren barnean dagoen edozein elementuren gutxieneko garaiera 2,20 metrokoa izan behar da, betiere, oinplanoan duen proiektzioaren azalera metro koadro bat baino gehiago ez bada eta mota honetako elementu guztien batuketak lokalaren azalera publikoaren %10 gainditzen ez badu.

7.7.5.Tarteko solairuak egon daitezke gutxienez 2 metroko garaiera badute eta solairu horren azalera lokalaren %30 hartzen badu. Tarteko solairuak soilik biltegi gisara erabil daitezke.

7.8.Komunak.

7.8.1.Establezimendu guztiek publikoarentzat zabalik egongo diren komunak izan behar dituzte

osasun eta higiene egoera egokian.

—35 m² arteko lokalek elementu hauek dituen bainugela izan behar dute: Komuna, pixatokia eta konketa.

—35 m² baino gehiagoko azalera duten lokalek gutxienez hau izan behar dute: Ezaugarri berak dituzten bi bainugela, bat emakumeentzat eta bestea gizonezkoentzat

7.8.2. Isolatuta geratzeko moduan instalatu behar dira bainugelak, atarte baten bidez. Horrek bainugelak publikoarentzako den eremutik isolatuko ditu eta ezingo da sartu ez sukaldetik, ez eskaileretatik, ez eta elikagaiak landu, maneiatu edo biltzen diren lekuetatik ere.

7.9. Aireztatzea.

7.9.1. Establezimendu gustiek aireztatze-sistema izan behar dute txartutako airea edo aire akastua berrituko duela berma dezan. Sistema horrek orduko 5 aldiz lokalaren bolumenaren adinakoa izan behar du. Aireztatze behartu bidez egin behar da, baina inola ere ez da aireztatze-shunt batera ahoratuko aireztatze behartu hori.

7.9.2. Sukaldeko, labeetako, frijigailuetako, erregailuetako, plantxetako eta antzekoetako keak erretzen ez den materialez egindako hodi eskusibo bidez hustu behar dira. Hodi hori eraikinaren teilatutik 1,50 metro baino gorago geratu behar da. Kea eragiten duten elementuek gaseri eta solidoei eusteko iragazkia duen kanpaia izan behar dute.

7.9.3. Aireztatze-sistemak ez die zarata edo darderek eragindako eragozpenik sortu behar bizilagunei.

7.9.4. Leihoak ez dira airetzatzeko sistema gisara joko, izan ere itxita eduki behar dira jarduera garatzen den bitartean.

Zerbitzu publikorik ematen ez den orduetan erabili ahal izango dira airetzatzeko, baina horrek ez du esan nahi leihoak dituzten establezimenduetan behartutako aireztatze-sistema instalatuzetik libratuko direnik.

7.10. Zaratak.

7.10.1. Jarduerak eragin dezakeen zarata mailarik altuena 100 db (A) ezarri da, betiere edozein anplifikagailu motaren bidez eta lokalean barreiatutako bozgorailu bidez audioa entzuteko sistemarik baldin badute. Sistema horiek modu eraginkorrean ainguratuta egon behar dute bolumenak gehienez ere lokalaren barnean 95 db (A) zarata-maila gaindi ez dezan.

Audio aparatuek dituzten establezimenduetan, jarduerak sortzen duen zarata maila 90 db (A) bada, aparatuek behar bezala ainguratuta egon behar dira bolumen garaienak lokalaren barnean 85 db (A) baino zarata-maila altuagoa eragin ez dezan.

Era berean, apartuek ainguratzea ere eskatuko zaie audio aparatuek izan eta baimendutako zarata-maila 90 dezibelio baino gutxiago izan behar duten jardueretarako.

7.10.2. Soinua zuzenean kanpoaldean entzun ez dadin, itxitura automatikoa duen ate bikoitza instalatu behar da.

7.10.3. Hosgabetze-proiektuek lokal barnean sortzen den soinu-maila zein den zehaztu behar dute, baita forja-xurgatzea, hormen xurgatzea eta abar zein den eta abar, isolatze materialen xurgatzea, hau da, guztizko xurgatzea zein den dagozkien kalkuluak eginda.

7.10.4.Edonola ere ezin dira gairitu 40 db(A) gaueko hamarrak arte edo 30 db(A) goizeko 8ak arte, Leq. minutu baten baliokide den maila jarraian, ez eta 45 db (A) eta 35 db(A) ate eremuko gehieneko balio gisara, logela, sukalde eta egongeletan goizeko 8etatik gaueko 10etara.

7.10.5.Lokalen presio akustikoa mugatzeko jarri behar diren aparatuek, honako gutxieneko kontrolak izan behar dituzte:

—Kalibratze-sistema, zeinak abian jartzen den bakoitzean sistemak aldaketarik ez duela bermatu behar duen eta mikrofono, bozgorailu eta abarretan esku-sartzerik izan ote den ezagutzeko sistema izan behar duen.

—Jarduera dagoen bitartean lokalean sortu diren soinu minimo, ertain eta maximoen mailak jasotzeko sistema izatea, bai eta jarduera noiz hasi eta noiz amaitu den jakiteko modua ere.

—Zigilua hautsiko ez dela bermatu eta egindako kontrolei buruzko informazioa gordeko duen kontrol-sistema. Udalaren zerbitzu teknikoei jarduerari buruzko aldiari behingo edota gerta daitezkeenei buruzko kontrola egitea ahalbidetuko dien sistema bat izatea.

7.10.6.Edonola ere, lokalaren hotsgetzeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak ezarritakoa bete behar du.

7.11.Argizatzea.

7.11.1.Larrialdietako argiak jarri behar dira establezimenduaren irteera guztietan. Pasabide bakoaren gainean jarri behar dira ikusteko moduan egon daitezzen eta irteera dela adierazi behar da.

7.11.2.Larrialdietako argizatze-ekipoak ere eduki behar dira, nahiko argiztatua geratzeko modukoak, bainugeletan, barraren eremuan eta publikoarentzako den eremu guztian.

7.11.3.Larrialdietarako argi-puntuek gutxienez ordu betean iraun egin behar dute eta 5 lux.-eko indarra izan behar dute.

7.12.Terrazak (mahaiak eta aulkiak).

1. Baimendu daitekeen mahai eta aulki kopurua zein den banan-banan aztertuko da.

2. Mahaiak eta aulkiak jaso egin behar dira establezimendua ixten denean eta lokalaren barnean gorde.

8. artikulua.Izapideak.

8.1.Ordenantza honetan aurre ikusitako edozein motako jarduera zabaltzeko eskaera-orria bete behar da. Eskaera alkateari zuzendu behar zaio eta honako datu hauek bete behar dira: Eskatzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta nortasun agiria.

Eskaera-orrian eskatzaileak zer izaeraz parte hartzen duen azaldu behar da, hau da, norberaren izenean ari den edo beste pertsona baten ordezkari gisara, eta hala bada, egiaztatu egin behar du hori.

8.2.Eskaerari proiektu teknikoaren lau kopia erantsi behar zaizkio. Proiektua eskumena duen teknikariak idatzirik eta dagokion elkargo ofizialak oniritzia emanda egon behar du.

Proiektuak agiri-plano hauek izan behar ditu:

A)Planoak

- a)Jarduera jarri nahi den eraikina non dagoen azaltzen duen plano 1:5.000 eskalan.
- b)Bananketaren solairuak 1:50 eskalan. Lokalak duen azalera guztira, bai eta atal bakoitzean duena ere, hau da bainugelek, aldagelek eta abar. Horretaz gain instalatu behar diren makinak eta elementuak non kokatu behar diren adierazi behar da, suteen aurkako bitartekoak zein diren, argi arrunten zein larrialdietako ezaugarriak, non kokatu behar diren adieraziz.
- c)Atalak, goi zein behe solairuekiko jardueraren egoera zein den zehaztuz, 1:50 eskalan.
- d)Fatxadaren aurretiko bistak, 1:50 eskalan, hurbilen dauden lokalak zein diren seinaleztatuz.
- e)Hosgabetze ainguraketen proposamenei buruzko eraikuntzako-konponbideak.
- f)Instalazio elektriko, iturgintzako, saneamenduzko, aireztatze-instalazioen, aire-egokiturako, klimatizazio-instalazioen eskemak, horiek guztiak 1:50 eskalan.

B)Honako hauek jasoko dituen txostena:

- a)Jardueraren deskribapena, ezaugarriak.
- b)Instalatu behar diren makinak, mota eta ezaugarriak zein diren adieraziz.
- c)Keak, gasak eta usainak desagertarazteko eta horien arazketa egiteko prozedura.
- d)Instalazio higieiko-sanitarioak, eta hondakin-urak eta hondakin-solidoak hustutzeko sistemak.
- e)Hotsak, dardarak eta abarrak zabaltzea saihesteko proposatu diren neurri zuzentzaileak, bai eta onargarri den soinu-maila lortuko dutela bermatzen duten kalkuluak ere.
- f)Baldintza tekniko, akustiko eta suteetatik babesteari buruzko Eraikitze Oinarrizko Arauak bete dituztela azaltzen duen egiaztagiria.

C)Hosgabetze-proiektua, bere kalkuluak dituela.

D)Hala badagokio, ikuskizun publiko eta dibertimenduzko jardueri buruzko arautegi berezia bete duela adierazten duen egiaztagiria.

E)Aurrekontua.

F)Gauzatzea eta abian jartzea.

Obrak eta instalazioak eskumena duen teknikariaren zuzendaritzapean gauzatu behar dira. Lanak amaitzean dagokion Zuzendaritza eta Obra Amaierako ziurtagiria egin behar du, zeinetan obrak bere zuzendaritzapean egin direla jaso behar duen, idatzitako proiektuari jarraiki eta jardueraren titularrari jakinarazi zitzaizkion eta txostenean jaso ziren neurri zuzentzaileei loturik.

Jarduera instalatzea baimendu ondoren, ezingo da abian jarri udal teknikariak ikuskatze bisita egin arte. Horrek egiaztatuko baitu baimenean ezarri diren neurri zuzentzaileak bete diren. Horretarako eta obrak amaitu ondoren udalari esan behar zaio eta obraren zuzendariak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria aurkeztu behar da, zeinetan obrak gauzatu direnean jarduera-baimenean nahiz obra-baimenean ezarritako baldintza guztiak bete direla ziurtatu behar den, gainerako administrazio-agiriei kalterik egin gabe.

9. artikulua.Iraungitzea eta jarduera etetea.

Ordenantza honek eragiten dien establezimendu eta jarduerak instalatzeko, legezatzeko, handitzeko eta eskualdatzeko ematen den baimen oro eten egingo da eta ondorioz gabe, betiere interesdunari entzun ondoren, honako kasu hauetan:

9.1. Baimena eman eta handik bi urtera obrak edo instalazioak hasi ez badira.

9.2. Jarduera publikoarentzat itxita baldin badago bi urte edo gehiagoan.

Alderdi hori Ordenantza hau indarrean jarri den eguna baino lehenagotik baimena duten establezimenduei ere aplikatuko zaie.

10. artikulua. Ixteko orduak.

Jarduera bakoitzerako ezarritako ixteko orduak abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta dibertimenduzko jardueren ordutegiak ezartzen dituenak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituenak edo ordezkoko arautegiak xedatutakoak dira.

11. artikulua. Ikuskatzeak, kontrola eta prebentzio-neurriak.

11.1. Ordenantza honek xedatutakoa beteko dela bermatzeko ikuskatze eta kontrolerako funtzioa eskumena duen udal zerbitzuak egingo du edo udalak bideratu ditzakeen beste pertsona edo erakunde batzuek, bestela.

Ikuskapenak udalak bere ekimenez egin ditzake edo alde batek eskatuta salaketaren bat dagoelako.

11.2. Ikuskizunen antolatzaileek eta jardueren, lokalen edo instalazioen jabeek, titularrek eta arduradunek ikuskatzeak eta kontrolak egiteko egiaztagiria duten pertsonen sartzeko utzi behar die edozein unetan, bai eta ikuskapena egiteko beharrezkoa den laguntza emateko prest ere egon behar dute.

11.3. Egiten diren ikuskapen guztien akta jaso behar da. Horren kopia bat jardueraren titularrari, bere ordezkari edo establezimenduaren langileari eman behar zaio, eta beste bat salaketa jarri duenari, baldin badago. Ikuskapena eginez Ordenantza ez dela bete ikusten bada, txostenari hasiera emango zaio kautelazko neurriak hartzeko, bai antzemandako akatsak eteteko, bai neurri zuzentzaile egokiak jartzeko, eta, hala badagokio, txosten-zigortzaileari hasiera emateko.

12. artikulua. Arau-haustea eta zigorrak.

Ordenantza honen xedapenak betetzen ez badira egiaztatze, errekerimendu eta zigoren erregimena otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak xedatutakora egokituko da, azaroaren 10eko 4/1995 Legeak, ikuskizun publiko eta dibertimenduzko jarduerari buruzkoak xedatutakoa ere aplikatu daitezkeela kontuan harturik.

12.1. Zaratek sortutako eragozpenak.

Modu partikularrean zarata eta dardaren arloko arauak betetzen ez badira, hau ezarri da:

12.1.1. Prozedura.

Neurketa akustikoak egin eta gero modu argi eta nahikoan zehaztu bada establezimendu batek garatu behar duen jarduerarako behar besteko isolamendu akustikoa duela, baina hala ere, lokal barnean garatzen ari den jarduerak eragindako zaratagatik salaketarik izan badu, jarduera horren

erabilera ez egokia eta kontrol faltagatik sortu direla joko da, izan ere, egokitu zen muga maximoa baino zarata gehiago sortu baitu. Beraz, honela jardungo da:

1.º Zarataren eragina jasan duenak salaketa formala aurkeztu behar dio udalari edo ordena publikoaz arduratzen den polizia-autoritateari.

2.º Eragozpenak egiaztatu egingo dira etxebizitzaren barnean, establezimenduaren barnean sortutako zaraten neurketa eginez, betiere, indarrean dagoen araudiari jarraiki eta establezimenduaren titularrari aurretik abisua pasatu gabe. Horretarako behar bezala kalibratutako sonometro homologatua erabiliko da. Egindako neurketaren akta jasoko da bi lekuko bertan direla. Lekuko horiek ez dira jarduten ari dena eta salaketa jarri duena izango. Akta horretan modu zehatzean jaso behar da eragindako zaratak, zeinak traba horien sortzaile diren, jarduera horrek eragindakoak direla ziurtasunez, eta, horretaz gain, egindako neurketan eragin ahal zuten bestelako zaratarik ez dela egon jaso behar da.

Aktak udal teknikariek, udaltzainek edo Ertzaintzak egin ditzakete, edo, Udal honek aurretik onartu eta neurketa akustikoak egiten espezializaturik dagoen enpresa batek, bestela.

3.º Akta horiek udalaren esku utzi behar dira legeak ezarritako bideak erabiliz dagokion moduan jardun dezan.

12.1.2. Jardueraren zaratagatik sortutako eragozpenak:

1. Jarduera batek bere instalazioak gaizki erabiltzen dituela jotzen da edo horien gaineko kontrol falta duela, egindako neurketen aktetan baimendutako muga maximoak baino bost (5) db(A)ko zarata-maila baino gehiago badu, edo, 90 egun baliouduneko epean zaratak baimendutako maila baino handiagoak direla azaltzen diren hiru akta desberdin baldin badaude, nahiz eta lehen aipatutako 5 db(A) diferentzia hori ez gainditu.

2. Zarata maila A (dB (A)) haztapen-eskalan neurtuko da Maila Baliokide Jarraian 60 segundutan.

Dena dela, zarata oldartsuak edo tonu garbiak daudela aztertzeo neurketak ere egin daitezke. Gutxienez hiru neurketa egin behar dira jasotako akta bakoitzeko.

3. Egiten den neurketaren aktak gutxienez datu hauek izan behar ditu:

—Neurketa zein egunetan eta ordutan egin den.

—Salaketa jarri duenaren izena eta sinadura.

—Neurketak egin diren etxebizitzaren helbidea eta deskribapena. Krokisa egin behar da eta sonometroa non jarri den adierazi.

—Akta jaso den jardueraren izena eta helbidea.

—Jardun duenaren identifikazioa eta sinadura.

—Lekuko izenak eta helbideak eta beren sinadurak.

—Sonometro mota eta marka. Serie-zenbakiaren bidez identifikatu behar da.

12.1.3. Zigor mailak.

Jarduerak eragindako zaratek eragozpenak sortzen dituztela egiaztatu ondoren, eta egintzan bildu diren aringarriak eta larrigarriak aztertu eta aintzat hartu ondoren, udal-aginpideak, azaroaren 10eko 4/1995 ikuskizun publikoen eta dibertimenduzko jardueren Legeak xedatutakoari jarraiki jar daitezkeen diru-zehapenei kalterik egin gabe, txosten zigortzailearen barnean hurrenez hurren honako zigor hauek ezarriko ditu:

1.º Irregularitasun horien berri eman jardueraren titularrari, irregularitasun horiek irauten badute jarduketa gogorrakoak hartuko direla ohartaraziz.

2.º Epe jakin batean (gutxienez zazpi egun naturaletan eta gehienez 90 egunetan) jardueraren baitan edozein ikus-entzunezko aparatu mota erabiltzeko debekua ezartzea, gaueko hamarretatik aurrera edo jardueraren egun osoko denboran.

3.º Jarduera gaueko hamarretatik aurrera garatzeko debekua ezartzea epe jakin baterako (gutxienez 15 egun naturaletan eta gehienez 90 egunetan).

4.º Jarduera epe jakin batean garatzeko debekua ezartzea (gutxienez 7 egun, gehienez 90).

5.º Denbora mugagabean jardueraren barnean ikus-entzunezko edozein aparatu mota erabiltzeko debekua ezartzea gaueko hamarretatik aurrera edo jarduera garatzen den denbora guztian.

6.º Denbora mugagabean gaueko hamarretatik aurrera jarduera garatzeko debeku zehatza ezartzea.

7.º Jarduera mugagabe ixtea, eragozpenak gainditzeko neurri zuzentzaile egokiak aplikatu arte, eta, betiere, jarduerarik izan ez den epea sei hilabete baino gutxiago izan bada.

12.2. Ixteko eta irekitzeko ordutegiak ez betetzea.

12.2.1. Partikulari jarduera ixteko eta irekitzeko ordutegia betetzen ez bada, hauxe ezarri da:

1. Ordenantza honek arautzen dituen jardueren artetik jakin batean ixteko eta irekitzeko ordutegietan ustezko arau-haustea daudela egiaztatu ondoren, eta egintzan bildu diren aringarriak eta larrigarriak aztertu eta aintzat hartu ondoren, udal-aginpideak, lege ezarritako prozeduren bidez, honako zigor hauek ezarriko ditu hurrenez hurren, hutsak zenbat aldiz egin diren oinarri hartuta eta horien larritasuna aztertuta, betiere, abenduaren 16ko 296/1997 Eusko Jaurlaritzaren Dekretuak xedatutako irizpide eta zenbatekoei jarraiki.

2. Ondorio horretarako, aipatutako lege-esparru horren barnean, Ibarrarako zehazki isun hauek ezarri dira:

1.º Isuna, gehienez ere 300,51 € arte.

2.º Isuna, 330,51 € eta 1.202,02 € artean.

3.º Isuna, 1.202,02 € eta 6.010,12 € artean.

4.º Isuna, 6.010,12 € eta 18.030,36 € artean.

5.º 12.020,24 euroko isuna eta jarduera gauzatzeko debeku zehatza, gutxienez 30 egun naturaletan eta gehienez 90 egunetan.

6.º 12.020,24 euroko isuna eta jarduera gauzatzeko debeku zehatza, gutxienez 90 egun naturaletan eta gehienez urte betean.

3, 4, 5, eta 6. ataletan aipatutako zigorrak ezartzeko nahitaezkoa da zigor hori jartzeko arau-haustea gertatu baino urte bete lehenago beste bi hutsegite gertatzea, hau da, azken hori urtebetean egin den hirugarren arau-haustea izatea.

12.2.2.Aurretik aipatutako zigorrak gradualki jarriko dira, artikulua honetan araututako arau-haustea zenbatetan errepikatu diren ikusi ondoren, hau da, lehengo arau-hauste bada 1. atalean jaso den zigorra ezarriko zaio, bigarren arau-haustea izan bada 2. atalean jaso den zigorra eta horrela pixkanaka eta hurrenez hurren ezarri den zigor-graduazioa agortu arte.

12.2.3.Bereizteko, aipatutako atal bakoitzaren barnean, arau-haustearen larritasuna handiagoa edo txikiagoa den jakiteko, eta kontuan hartu behar diren beste edozein egoerei kalterik egin gabe, oinarrizko erreferentzia gisara jarduerarako ezarri den ixteko orduaren eta dagokion «arau-hauste Aktan» aipatzen den orduaren artean pasatutako denbora hartuko da.

Zigor horiek ezartzea, dena den, lehen xedatutakoaren mendean egongo da, kontuan hartu behar diren egoera aringarri edo larrigarriak aintzat hartzeari dagokionean.

12.2.4.Arau-haustea aldi baterako baimenak ematen direnean gertatzen badira, hau da, salmenta-etxolak, txosnak, terrazak, olanak eta abar jartzeko baimenak ematen direnean, emandako baimena kenduko zaie automatikoki, eta horietaz berriro ere gozatu nahi badute beste baimen bat eskatu behar dute. Baimena ez ematea erabaki daiteke egindako arau-hausteen maila eta arau-haustea zenbat alditan egin duten kontuan harturik.

12.2.5.Prozedura.

Establezimendu mota hauen ixteko eta irekitzeko ordutegiak ez betetzeagatik ustezko arau-hausteengatik salaketan aktak jaso ondoren, zeinak eskumena duen aginpidearen agenteek egin baitituzte, txosten zigortzaileari hasiera emango zaio, eta indarrean dagoen administrazio-legeek xedatzen dutenari jarraiki bideratuko da.

Prozedura bideratzen ari den bitartean antzeko egintzengatik beste salaketa-akta bat egiten bada, txostenari erantsiko zaio eta kontuan hartuko da zigorrak ezartzeari dagokionean 12.2.3. atalaren azken paragrafoan xedatu denaren ondorioetarako.

12.3.Errepikatzea.

Zigorren graduazioa ezartzeko, jarrera errepikakorra dagoela jotzen da arau-hauste berriak sei hilabete natural baino denbora gutxiagoan egiten badira, azken zigorra ezarri den egunetik zenbatzen hasita.

Modu argi eta nahikoan jarduerak eragindako irregulartasunak daudela egiaztatu ondoren, eta aurrekariak eta kasuarekin zerikusia duten gainerako egoerak aztertu ondoren, udal-aginpideak, dagozkien isunak jartzeaz gain, legez ezarritako bideak erabiliz beste jarduketa hauek ere egin ditzake:

a)Jardueraren titularrari irregulartasun horiek daudela jakinaraztea, eta horrela jarraitzen badute jarduera gogorrakoak hartuko direla ohartarazi.

b)Debeku zehatza ezartzea gutxienez hamabost egun naturaletan eta gehienez 90 egunetan gaueko hamarretatik aurrera edo jarduerak eguneko egiten duen denbora guztian.

- c)Jarduera garatzeko debeku zehatza gaueko hamarretatik aurrera gutxienez zazpi egun naturaletan eta gehienez 90 egunetan.
- d)Jarduera garatzeko debeku zehatza gutxienez zazpi egunetan eta gehienez 90 egunetan.
- e)Denbora epe mugagabea jardueren debeku zehatza gaueko hamarretatik aurrera edo jarduerak egunean egiten duen denbora guztian.
- f)Jarduera denbora mugagabea ixtea irregulartasunak konpontzeko ezarritako neurri zuzentzaile egokiak aplikatu arte.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehena. Ordenantza behin betiko onartzen den egunean nahitaezko udal-baimenik gabe ordenantza honi lotutako jardueraren bat garatzen ari direnek, legeztatzea eskatu behar dute sei hilabeteko epean, ordenantza indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena. Ordenantza behin betiko onesten den egunean udalaren baimena izanik establezimenduak instalatu dituztenei edo ordenantzari lotutako jarduerak garatzen ari direnei errespetatu egingo zaizkie beren eskubideak, ordenantza honetan ezarri diren betebeharren mende jartzeari eta eskatzen diren baldintzak betetzeari kalterik egin gabe.

Hirugarrena. Ordenantza honetan jasotako eskakizunak, ezintasun teknikoagatik edo fisikoagatik, bete ezin dituzten establezimenduak salbuetsita geratuko dira, eta salbuesteko egindako eskaera udalaren zerbitzu teknikoek hori arrazoitzeko txostena egin ondoren ebatziko da. Dena dela, jarduera antolamendutik kanpo dagoela joko da, eta debekatu egingo da bolumen-handitzeak egitea edo erabilera handitzea, eta berritze eta mantentze-lanak egiteko obrak baino ez dira baimenduko.

Laugarrena. Ordenantza hau onesten den unean beren lokalak itxita dituzten edo itxi nahi dituzten jarduerak baldin badaude, berriz irekitzeko eskubideari eutsi egingo diote bi urteko epean Ordenantza onesten den egunetik zenbatzen hasita lehenengo kasuan edo itxi den egunetik zenbatzen hasita bigarren kasuan. Behin epe hori igaro ondoren baimenak balioa galdu duela aitortuko da.